

## KULTURKRITIKA

» LIBURUA

# Batailaren baitako paisaia



Aritz Galarraga  
@aritzgalarraga

Gogoan dut garai hartan kolaboratzen nuen gehigarri kulturalari proposatu niola, *Bezperaren bezpera* iruzkintzea. Ez egiteko emandako arrazoia izan zen denbora, liburua ez zela nobedade-nobedadea –udaberrian iruzkindu nahi izan nuen Durangorako atera zena, gauza ohikoa–. Arrazoia irentsi nuen, noski, nahiz orain liburua irakurtzean asmatu uste dudan zein izan zitekeen egiazko motiboa. Aingeru Epaltzaren lehenbiziko saiakera –gerora ez du gehiago atera–, Xabier Mendiguren editorearen hitzetan liburu guztiak onak idatzi dituen idazlearena. Jon Kortazarrek, “egilearen autobiografia intelektual gisa” onartu beharko genukeela dio, nahiz autobiografia politiko gisa onartzea litzatekeen agian zehatzena. Hori bai, bat nator kritikariaren iritziarekin: maisuki egiten du Epaltzak.

Borroka armatua “niretzat eta ni bezalakoentzat euskalduntasunaren markarik behinena” zen garaitik, “ekintza armatuek euskarari eta euskal kulturari ekartzen zizkien zehar-kalteez” ohartarazteraino, Franco hil ondotik liburua argitaratu arteko tartearen kontakizun politiko zorrotza da Epaltzarena; kontziente dena “aro baten akabantzaren bezperan gaudela. Edo bezperaren bezperan”. Batailaren baitako paisaia erakusten digu Epaltzak, hartara, paisaia maiz desolagarria –“Iduri du Euskal Herri politikoa eraiki nahiaren nahiaz, ez dugula sendotzen jakin Euskal Herri kultural, ekonomiko eta sozialaren zimendua”–, paisaia ez beti erabat zuzena


## Bezperaren bezpera

AINGERU EPALTZA

Pamiela, 2007

*Aingeru Epaltza Ruiz de Alda idazlea (Iruñea, 1960).*

ELENA RONKAL



–“Hemengo jainkoak ez dira inor Endarlatsatik harata”; Epaltza bera horren froga garbia–, paisaia batzuetan zuzenean okerra –“Inoiz nafar eskuina Foru Jauregitik eta Iruñeko Herriko Etxetik bidaliko badugu, sozialistekin batera eginen dugu”–. Baina inondik ere zintzoa: “Egun, urrunegi daude politikoki bi erkidegoetako biztanleak. Urruntze horretan zer esana izan duten faktoreen azterketa guztiz pertsonala dira, bertzeak bertze, orrialde hauek”.

Bertzeak bertze, ezen, idazle batek idatzitako memoria politikoak izanik, literaturaren gaineko ohar jakingarriak ezin falta: “Salbuespenak salbuespen, gure mataza odoltsuan korapilatutako nobelak euskal idazleok idazten ditugu, ez erdaldunek”. Baina, esandakoa: batez ere batailaren baitako paisaiaren kontaketa aurkituko dugu; zeina bestela ikusten baita, zalantzarik gabe, batailaren ondoko paisaiatik. ■